

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 220/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa. Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarreko bokal kudeatzailea izendatzea

2025eko urtarrilaren 15ean, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak foru aldundi honi jakinarazi zion kargu bat hutsik zegoela Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrean, administrazio batzar horretako 1. bokal kargua zuen Mikel Ganzedo Cruzek karguari uko egin ziolako eta kargu huts hori ezin izan zelako bete, hautetsitako ordezkorik ez zegoelako.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiari eskatu zion kudeaketa batzorde bat osa zezala. Batzorde horretako kide izango dira Errejidore eta Batzarkideak Hautatzeari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren 4. artikuluan ezarrita dauden hautaezintasun kausaren batean ez dauden hautetsi guztiak, bai eta uko egin ez duten gainerako batzordekideak ere.

Horiek horrela, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta batzarkideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin eta Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzordeak eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta lanean aritzeari buruzko arauak ezarri zituen Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bokal kudeatzailea izendatu behar da, kudeaketa batzorde horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 30eko 52/2025 Foru Aginduaren bidez, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrari eskatu zitzaion proposa zezala foru aldundi honek zer pertsona izendatu beharko lukeen kudeaketa batzordeko kide izateko, gaur egun hutsik dagoen kargua betetze aldera.

Fede emailaren 2025eko otsailaren 20ko ziurtagiriaren bidez, foru aldundi honi jakinarazi zitzaion 2025eko otsailaren 20an egindako kontzejuaren auzo batzarrean erabaki zela Eduardo Padura Udaeta proposatzea Menagarai-Beotegiko Kudeaketa Batzordeko bokal izateko.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak eta 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak sail honi esleitzen diote, besteak beste, kudeaketa batzordeen izendapenarekin lotutako prozedurak kudeatzea, hala dagokionean.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluari eta 24.5 artikuluari jarraikiz, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Eduardo Padura Udaeta Menagarai-Beotegiko Kudeaketa Batzordeko 2. bokal izendatzea.

Bigarrena. Bat etorritz martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiaren bigarren apartatuan xedatutakoarekin, errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezi batean jabetuko da karguaz aipatutako bokal kudeatzailea. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egin behar da bilkura hori.

Bilkura egin ondorengo hiru eguneko epean bidali behar zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala, eta Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrari, Aiarako Udalari eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari helaraz diezaiela.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GARCÍA GORBEÑA